

BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroarentzat balorea sortzen duten elementuen artean, gure negozio ideia nobedadea da, berritzailea delako aurrez existitzen ez ziren beharrianak asetzea duelako helburu. Lonjak alokatzean, gehienetan, ez bada guztietan, ordainketa hilabetero egiten da, baina horrek baditu desabantaila batzuk, behartzen zaituelako hilabete osoa ordaintzera, baina agian batek bakarrik nahi du alokatzea lonja bi astetarako. Orduan gure negozioan lonja alokatu ahal izango da orduen arabera. Gainera, bezeroak kontaktuan jartzen ditu haien arteko ekintzak aurrera eramateko edo haien artean laguntza eskaintzeko. Lokalean wifia egongo da, haien etxean internetera konektatzeko aukera ez dutenak, bertan izango dute aukera. Halaber, aukera emango zaie gure lokalaren bezeroak diren unibertsitarioei klase partikularrak emateko ikasleei. Guk arduratuko gara unibertsitarioen kontseiluekin hitz egiteaz aukera hori azaltzeko eta eskoletako AMPA-ko taldeei klase partikular horietaz hitz egiteaz.

Gure negozio ideia bezero segmentu baten berariazko beharretara egokitzen da. Zerbitzua zuzenduta dago batez ere, gazte taldeei leku bat behar eta bilatzen dutenak haien lagunekin aisialdian egoteko, ospakizunak egiten nahi dituzten taldeentzako, ikasle-taldeei lana taldean egin behar dutelako edo bakarrik egoteko leku bat bilatzen dutelako eta ordenagailuarekin edo ofizinako lanean aritzen diren pertsonentzat. Ikasle taldearen segmentuaren barruan klase partikularrak emango dituzten unibertsitarioak sartzen dira ere bai. Halaber langilearen bat ordenagailuarekin lan egiten duena edo leku lasai bat bilatzen duena lana egiteko ere jo dezake gure lonjara.

Horrez gain, bezeroari lan deberdinak egiteko erraztasuna ematen dio. Alde batetik, leku bakar batean hainbat aukera dituzte gauza desberdinak egiteko. Gazte taldeak, haien lagunekin geratzen direnean lonjan izango dute aukera futbolinean aritzeko telebista ikusten duten bitartean. Beste aldetik, adibidez, ikasleek haien etxeetan edo liburutegi batean egin ezin duten lanak erreztasun handiagorekin edo modu erosoagoan egin ahalko dituzte, isiltasun gehiago dagoelako, edo beste ikasle batzuekin geratu daitezkeelako elkarrekin ikasteko. Eta asteburuetan, gazteak kalean ez egoteko leku aproposa da, batzuetan zaila delako haien etxeetan geratzea lagunekin egoteko eta horregatik lonja bat baldin badaukate, ez da egongo inolako arazorik guztiak batzeko bertan. Erraztasun hori ere islatzen da web-gunenaren erabileran, oso erraza izango delako web-aren bidez alokatzea lonja eta beste bezeroekin kontaktuan jartzea.

Azkenik, gure negozioak ez du arriskurik. Erabiltzen diren orduen arabera ordaintzen denez, ez dago dirua galtzeko aukerarik, bakarrik ordaintzen direlako erabiltzen diren orduak. Aldiz, lonja normal bat, hilabetez ordaintzen da, eta gerta liteke hilabete osoan hiru egunetan bakarrik joatea, eta kasu horretan, diru asko galduko lukete bezeroek. Hala ere, fiantza bat eskatuko zaie zerbait apurtzerakoan edo lonja oso zikina uztean itzuliko ez zaiena.